

Urratze literarioak UEUren giharretan

Iratxe Retolaza

Mende erdiz urratu du ezagutza Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), mende erdiz harrotu du jakin-mina UEUK. Ibilbide bihurri horretan zehar, UEUren giharrak literaturaz elikatu dira, gogoeta literarioz uzkurto eta laxatu dira.

UEUko Literatura Saila, bide-urratzaile

UEUK Literatura Saila jarri zuen abian, sailka egituratu zen unetik beretik ia, eta beste unibertsitate- edo jakintza-erakunde batzuetan euskal literaturaz, Literatura Kritikaz, Literatura Teoriaz gogoeta egiteko plaza gutxi zeudenean, UEUK horretarako plaza bat zabaldu zuen, hamarkadatan zehar eskuz esku zaindu dena, sailburuz sailburu bide berriak arakatu dituena. Mintegi-eran¹ zein sail-eran, 1973. urtetik aurrera² antolatu dituzte literaturaren inguruko gogoeta-guneak unean uneko sailburuek edo UEUKideek. Izen-zerrenda luze baten katebegiak dira sailburu eta UEUKide horiek, eta eskuzabaltasunez aritu dira, UEUren abaroan, euskal literaturaren inguruko irakurketa, kritika eta ikerketa sustatze-lanetan. Katebegi horiei guztiei eskertu nahi diegu Literatura Sailaren plaza bizirik irauteko eginiko inurri-lana. Besteak beste, honako kide hauek jardun dugu urte hauetan guztietan Literatura sailburu gisa, edo Literatura Sailaren bueltan ekimenak antolatzen: Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i, Ibon Sarasola, Karlos Otegi, Joseba Gabilondo, Bittor Uraga, Gerardo Markuleta, Fito Rodriguez, Kirmen Uribe, Gidor Bilbao, Iban

1. 1973. urtetik 1976. urtera «Hizkuntzalaritza eta literatur mintegia»ren bueltan egin ziren euskal literatura klasikoaren zein garaikidearen inguruko hitzaldiak, besteak beste, hizlari hauek parte hartu zutela: Jean Haritschelhar, Koldo Izagirre, Daniel Landart, Ibon Sarasola.

2. Informazio gehiagorako arakatu UEUren *Inguma*. *Euskal Komunitate Zientifikoa* datu-basea: www.inguma.eus

Zaldua, Ibon Egaña, Edu Zelaieta, Mikel Ayerbe, Iratxe Retolaza³, Amaia Serrano, Gema Lasarte eta Andrea Perales⁴.

Euskal Literatura Kritikak eta Euskal Literatura Teoriak bost hamarkada horietan zehar harturiko norabideen oihartzun batzuk izateko, Literatura Saitetik antolaturiko ikastaroen gaiei eta ikuspegiei erreparatu besterik ez dago.

- 1970eko hamarkadaren amaieran, batik bat euskal literatura klasikoaren eta literaturaren historiaren inguruko saioak egin ziren, genealogia literarioak eraikitzea eta kanon literarioak eraikitzea funtsezkoa baitzen euskal literaturaren inguruko irakaskuntza zein ikasketak errotzen ari ziren garai batean⁵.
- 1980ko hamarkadaren hasieran, ahozko literaturaren inguruko ikastaro bakanen bat izan ezik, ikastaro gehienek literatura-obra aztertze metodologiak izan zituzten aztergai, Literatura Kritikaren zein Literatura Teoriaren oinarriak ezagutze aldera⁶. Hain zuzen ere, unibertsitate-ikasketetan Euskal Filologia eta Literatura Ikerketak errotzen ari ziren garaian heldu zioten metodologia literarioak lantzeari.

3. Nik neuk lehen hitzaldia UEUKo ikastaro batean eman nuen, Anton Txekhoven ipuingintza hizpide hartuta, Gidor Bilbaok eta Iban Zalduak gonbidaturik, «Intxaurren eskola: ipuinak irakurri, idatzi eta itzuli» (2002) ikastaroaren testuinguruan. Larraonan izan zen hura ere.

4. Beste hainbat literaturagile eta literatura-irakaslek ere antolatu dituzte UEUn literaturaren inguruko ikastaroak (adibidez, Yolanda Arrietak), baina hemen Literatura Sailaren bueltan antolaturikoak aipatu ditugu.

5. Garai hartakoak dira, esate baterako, Ibon Sarasolak eta Jose Agustin Ozamizek antolaturiko «Euskal literatura zaharra» (1976) ikastaroa eta Miren Azkaratek antolaturiko «Berpizkunde garaiko euskal literatura» (1979) ikastaroa. Hain zuzen ere, 1977. urtean zabaldu zituen UEUK Ibon Sarasolak atonduriko *Euskal Literaturaren Gidaliburua* eta Enrike Zabalak atonduriko *Euskal literaturaren historia laburra*.

6. Hona hemen bide horretatik jo zuten ikastaro zenbait: Karlos Otegik antolaturiko «Literatur mintzairaren elementu operatiboak eta azterketa metodoak» (1982) eta «Ipuinaren azterketa literarioa» (1983), edo Jasone Biritxinagak eta Bittor Uragak antolaturiko «Joseba Sarrionandiaren prosagintza. Metodo semiotikoaren bidez zenbait ipuin» (1982). Garaitsu hartan, 1985. urtean, Karlos Otegi, Bittor Uraga eta Joseba Gabilondok «Literatur Teoria» izenburuko ikastaroa ere antolatu zuten. Obraren osagaien azterketa formalistara edo semiotikora hurbiltzen ziren ikastaro haietako gehienak, nahiz eta azterbide soziodiskurtsiboei ere bide eman, eta testuinguru hartan ere kokatzen da Bittor Uragak UEUn argitaraturiko liburuxka hau: *Nobelaren osagaiak*. Abuztuaren 15eko bazkalondoa-ko *osagaien azterketa* (1988).

- 1990eko hamarkadan, honako joera hauek nagusitu ziren. Batetik, garaiko literatura aztergai izateko ikastaroak antolatu ziren⁷. Bestetik, unibertsitate-esparruan ordura arte bazterrean zeuden euskal literaturaren beste arlo zenbait lantzeari ekin zioten: esate baterako, Haur eta Gazte Literatura⁸, edo Itzulpengintza literarioa —Itzulpengintza Sailarekin elkarlanean—⁹. Azkenik, irakurketa eta irakaskuntza uztartzen zituzten ikastaroak egiteari ekin zitzaion 1990eko hamarkadan, eta uztartze horri tarteka heldu zaio XXI. mendean zehar¹⁰. Hortaz, Literatura Saileko kideak aitzindari izan dira maiz, euskal literaturaren inguruko beste literatura-foro batzuetan hain presente ez ziren ildoak lehen lerrora eramane dituztelako. Esate baterako, itzulpengintza literarioa jorratu zuten, oraindik ere UPV/EHU-n Itzulpengintza eta Interpretazioa gradua martxan ez zegoenean (2000-2001 ikasturtean abiatu zen lehen promozioa).

7. Gerardo Markuletak hartu zuen batik bat 1990eko hamarkadan zehar antolaturiko ikastaroen ardura, eta literatura garaikidearen inguruko ikastaro hauek antolatu zituen: «Euskal narratiba modernoari buruzko mintegia» (1990), Bittor Uragarekin batera, «Egungo euskal poesiaren bideak. Poetak eta kritikoak» (1991), «Joseba Sarrionandiaren irakurleone topaketa» (1999) eta «Azken aldiko euskal narratiba: sortzaileak eta irakurleak» (1999), Kirmen Uriberekin batera. Azken ikastaro horretako ekarpenak UEUn bertan argitaratu ziren Kirmen Uriberen zuzendaritzapean, izen bereko liburuxka batean. Literatura garaikidearen inguruko beste ikastaro zenbait ere antolatu izan dira, adibidez, Gidor Bilbaok eta Iban Zalduak antolaturiko «Bitartean heldu hitzari: XXI. menderako poesiaren bila» (2003).

8. Gerardo Markuletak bi ikastaro hauek antolatu zituen: «Haur eta gazte literatura» (1992) eta «Haur eta gazte-literaturaren itzulpena» (1995). UEUn bertan lehen ikastaroan oinarrituriko liburua argitaratu zuten, Gerardo Markuletaren zuzendaritzapean: *Haur Literaturaren inguruan* (UEU, 1992). Ikastaro eta liburu hartan Xabier Etxanizek parte hartu zuen, urte gutxi batzuetara mugarri izan zen historia argitaratu zuena: *Euskal haur eta gazte literaturaren historia* (Pamiela, 1997).

9. Gerardo Markuletaren eskutik egin ziren itzulpengintza literarioaren inguruko ikastaroetariko eta hurbiletetariko asko: adibidez, «Literatura Unibertsala itzulpenen eskutik» (1994). XXI. mendean, nolana ere, itzulpenak ere izan zuen oihartzunik, besteak beste, ikastaro honetan: Gidor Bilbaok eta Iban Zalduak antolaturiko «Intxaurren oskola: ipuinak irakurri, idatzi eta itzuli» (2002).

10. Gerardo Markuletak antolaturiko «Literatur zaletasunaren didaktika: teoriak eta praktikak, esperientziak, errezetak, materialak eta bibliografia» (1997); Fito Rodriguezek antolaturiko «Literaturaren xarma: tailer praktikoa» (2006) eta «Irakurketa ateliarra» (2004); eta Iratxe Retolazak eta Amaia Serranok antolaturiko «Euskal Literaturaren irakaskuntza Bigarren Hezkuntzan» (2015). Bestalde, azken hamarkadan UEUk hezkuntza literarioan ekarpena egin du PREST_gara programan hainbat ikastaro eskainiz: ahozko literaturaz, irakurketa lantzeko estrategiez, haur literaturaz, literaturaren didaktikaz...

- XXI. mendearen hastapenetan sailburuek eutsi zioten literatura-ikerketaren plazan erdigunean ez zeuden gaiak jorrazeari (nahiz eta kezka garaikide betekoak izan), eta leku berezia hartu zuten gizarte-auziekin loturiko gogoeta-gaiek (euskal gatazka armatua, periferia literarioak —emakumetasunak, homosexualitateak, migranteak...—, Literatura Kritika Feminista...)¹¹, edo diziplinartekotasunarekin loturiko gogoeta-gairen batzuek¹².

UEUren mende Erdiko ibilbidea gogora ekartzeko eta berrasmatzeko egin dugu bildumatxo literario hau, eta bertako testu ugaritan UEUko Literatura Sailaren ikastaroetako batzuen oihartzunak eta arrastoak antzemango dituzu, askotariko moldetan.

UEUn antolatzaile, hizlari, idazle edota ikasle ari(tu) diren kide ugarirengana jo dugu, UEUren unibertsoa mundu literarioz janzteko eskaria egitera, eta asko poztu gaitu idazle-multzo handi eta esanguratsu batek gonbidapena onartu izanak. Estimatzekoa, gehienak lanez lepo ibilirik, UEUri sormen-denboratxo hori oparitu izana, taxuz egin ere. Bilduma poliedriko bat osatu dute, eta elkarren artean harremanik ez duten testuak izan arren, sormen-iturritzat UEUren unibertsoa hartu dutenez, elkarri oihartzun egiten dioten osagai edo egoera batzuk egon badaude, testuen artean elkarriketak sortzeko aukera ematen dutenak, eta geruza ugariko irakurketa-ibilbideak ahalbidetzen dituztenak. Hemen doaz, zertzelada lodiz, bilduman topatuko dituzun lerroetariko batzuk.

11. Euskal gatazkaren inguruko ikastaro aitzindari hau antolatu zuten Ibon Egañak eta Edu Zelaietak «Euskal gatazka euskal literaturan» (2005), gerora, liburu batean bildu zutena: *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan* (UEU, 2006). Hamabost bat urte beranduago, honako ikastaro hau antolatu zuen Ibon Egañak «Gatazkaren irakurketa feministak: fikzioak, diskurtsoak, errealitateak» (2021). Periferietara hurbildu ziren ikastaro honetan, «Gu, besteak eta ni. Erdiguneak eta periferiak gaurko literaturan» (2006), Ibon Egaña eta Edu Zelaietaren zuzendaritzapean. Eta Literatura Kritika Feminista ere jorratu zuten ikastaro hauetan: Iratxe Retolazak eta Amaia Serranok antolaturiko «Euskal Literatur Kritika eta Genero Ikerketak» (2017) eta «Egiletasuna eszenaratzeko moduak: hurbilketa bat literatur kritika feministatik» (2018) ikastaroak; eta Gema Lasartek eta Andrea Peralesek antolaturiko «Irakasleentzat literatura irakurtzeko eta ikertzeko tresnen bila. Irakurketa feminista eta kolektiboa» (2022).

12. Mikel Ayerrek eta Ibon Egañak antolaturiko «Irudiekin idazten, letrekin marrazten Zinema, ilustrazioa, komikia eta literatura» (2007) eta Iratxe Retolazak eta Amaia Serranok antolaturiko «Komikigintza eta literaturaren irakaskuntza» (2014).

UEU, urrakada bat jantzi ofizialari. Poesia-moldeko literatura-testuetan, UEUk gizarte-erlaketaren bidean eta ezagutza-komunitate bat sortzeko bidean eginiko urrakadak dituzte poesia-gai hainbat poetak: Mari Luz Estebanen «Desberdina izatearen seinale», Edu Zelaietaren «Soneto berriak UEUri jarriak» eta Jule Goikoetxearen «Labana titi artean». Eraldaketa-ahalmenari keinu egiten diote hirurek: ahots umoretsu eta jostaritik arituz, afektu-keinuak gorpuztuz, edota aldarritik hurbilago kokatuz.

Ezagutza-urratzeak. Izan badira ikastaro baten diskurtso-itxura hartzen duten bi literatura-testu, balizko ikastaro baten testu direnak: Itxaro Bordaren «Urritasun-ariketak (ikastaro bat)», eta Katixa Dolhare Zaldunbideren «Aitormena». UEUko ikastaroetako hitzaldiaren taxura hurbiltzen dira bi testuak, eta bietan egiten da jolas ezagutza-urratzeko moduekin eta kritika sozialarekin zein literarioarekin.

Memoria-urratzeak. Ezagutza-urratzeetan arakatzeko beste bide bati heldu diote testu batzuek, batik bat memoria-urratzeak eraiki dituzte, UEUko oroitzapenak astinduz: Aurelia Arkotxaren «Gari-landa horiak», Felipe Juaristiren «Zergatik gaude hemen», Angel Erroren «Mortadela» eta Aritz Gorrotxategiren «Orain, igeri egitea tokatzen zait». Lauretan begiratzeko ertz berriak proposatu dituzte eta galdera berriak arrakalatu dituzte. Horietariko hiruretan bidaiak eta ibilbideak mugarri garrantzitsu dira —izan bidaia fisikoak, izan bidaia psikologikoak, izan pentsamendu-bidaiak— («Gari-landa horiak», «Zergatik gaude hemen», «Orain, igeri egitea tokatzen zait»). Azken biek, gainera, badute saiakera literarioaren trazarik, memoria-ariketak akuilu bihurtu dituztelako gogoeta literarioak harilkatzeko.

Giza harreman urrakorrak. Halako ikastaroetan eta UEUren dinamikaren bueltan, ez dira soilik ezagutza literarioak sortu, ez dira soilik ezagutza-trukeak gertatu, giza harremanak ere gorpuztu dira, beren afektu, tentsio zein kontraesan guztiekin. Hain zuzen ere, giza tentsio, kontraesan eta zauri horietan arakatu dute gainerako testuek. Testu horietariko gehienek fikzioaren mugekin zein aukerekin jolas egin dute, eta gehientsuenak kutsu errealista duten narrazioak dira. Begirada errealista, baina jostari edota kritiko horretan kokatzen dira gehienak: Iban Zalduren «Bizkaia maite (Ipuin kostunbrista bat)», Aingeru Epaltzaren «Omenaldia», Eider Adeletxen «Ogi-apurrak», Idurre Eskisabelen «Txitxiak», Maialen Akizuren «Errespetua» eta Yurre

Ugarteren «Burbuila». Baina izan bada narrazio distopikorik ere, UEUren balizko etorkizun bat irudikatu duenik: Aintzane Usandizagaren «Urteurrena» narrazioa.

Testu-sortaren noranzkoa

Bildumako testuak ez dira sailkatu urratze-bide horien arabera, baizik eta UEUren ibilbidearen arrastoa irudikatu nahi izan da testu-hurrenkerarekin. Iruñeko Larraonako ikastaroen arrastoetatik hasi, eta Markeskua jauregiaren arrastotarantz eratu da ibilbidea, testuz testu, azken narrazioan etorkizuneko UEUko espazio posibleen itxura irudikatzeraino. Iban Zalduak abiatzen du bilduma, «Bizkaia maite (Ipuin kostunbrista bat)» narrazioarekin. Dakidanez, UEUren unibertsoan kokaturiko lehen narrazioa da, Gerardo Markuletarekin batera osaturiko *Ipuin euskaldunak* (1999) bilduman argitaraturikoa. Ordurako jada UEUko ikastaroetako giroa ezagutzen nuen neuk, Larraonan ibilia nintzen, lehen aldiz 1997ko uztailean. Orduantxe ezagutu nuen Iban Zaldua irakasle eta kulturgile gisa, «Kultura klasikoa» izeneko ikastaroan, orduantxe ezagutu nuen Gerardo Markuleta errezitaldi literarioetan. *Ipuin euskaldunak* bildumako «Bizkaia maite (Ipuin kostunbrista bat)» narrazioa irakurri nuenerako, beraz, neure esperientzietatik iragazi nuen irakurketa, eta estimatu nituen konplizitate-keinuak, (auto)parodiarako joera, begirada kritikoa eta umorea.

UEUren unibertsoa, beste edozein erakunderen zein mugimenduren ibilbidea bezalatsu, afektu-sarek josita dago, eta harreman emankorrez zein harreman korapilatsuz urratu zaigu azala, ekiteak beti dakarrelako urrakadaren bat, baita elkarrekin ekiteak ere. Hortaz, bildumako testuetan zehar giza sareek sorturiko itxaropenen, pozen, kontraesanen zein zaurien arrastoak topatuko dituzu. Izan dadila bilduma hauspo, etorkizunean ere UEU fikzioa sortzeko gune urragarri izateko.